

ELIZANBURU KONDATZAILEAREN EUSKARA

Sara, 1991-XII-21

Beñat Oihartzabal

Euskal literatura aipatzen duten liburuetan, laudorio ainitz bildu du Elizanbururen euskarak, mintzaira gozo eta malgua, *perekatzailea* zioen Lafittek, baitzerabilen, hala bere kobletan, nola bere hitz laxozko obran, harritzeko ez baita hizkuntza gaietan hain begi zorrotza zuen Mitxelenak, Lafon irakaslearen mirespena bereturik, Elizanburuk *euskararen gainean zuen nagusitasuna* deblauki aitortu baitzuen.

Beste hizlariak mintzatu zaizkizue jadanik, edo eginen aurki, Elizanbururen lanaren literaturazko balioaz, eta ez nuke orain haiek erran gauzarik errepikatu nahi. Hargatik haren euskararen aipatzea galdegina izan baitzait, mintzaira bera hartuko dut aztergai, estilistika eta literatur baliabideak hunki gabe, eta ene azterketa *Piarres Adame* elaberrian mugaturik.

Zergatik gorde behar nuke: nahiago ere dut gauzak horrela diren. Alabaina, Elizanbururen umore fresko eta sanoa, eta, halaber, haren liberaltasun eskeptikoa ere, gogokoak badituz, ez naduka *Piarres Adame* elaberriak —literatur obra gisa— hain miretsirik, nola baitauzka, nekez uka dezaket, gauza horietan ni baino fidagarriago diren gutiz gehienak. Irakurgai pullita dela, laketuz eta atseginez irakurtzen dena, aitor dut, baina —hori aski ez balitz— gehiagoko anitzik gabe, ene aburuz, non ez den obra birtuala gogoan hartzen; horrek, ordean, ni beldur, zuhurtziari bizkar emanaraz bailiezaguke, eta balizko literaturako eremu zabalegietan menturaraz.

Horiek hola, lot gakizkion, orain, gure gaiari, eta has gaitezen elaberri horretako euskararen azterten.

Lehenbizikorik eginbidea dut gure artean gai hori jadanik landua izan dela gogoraraztea, bai I. Sarasola, *Piarres Adame*-z egina izan den azken argitaraldian egin zuen aitzin solasean, eta bai, bereziki, G. Garate, euskal nobelaz idatzi duen historian, biak, zein bere moldean, entseiatu baitira Saratar idazleak zerabilen euskararen ikertzer, eta mugatzer. Egiaren errateko, hego aldeko irakurtzaileak bereziki gogoan zituztela

egin dituzte biek beren azterketak, Sarasolak literatur tradizioa kontuan harturik, eta Garatek, berriz, euskararen jatortasunaren arabera, arbuioak eta goresmenak, noiz nola, hari nola iduri, batere beldur gabe, baina ez beti zuzen ene gustuko, ematen zituela (1).

Saran hitza dudalarik, doi bat desberdina izanen da ene ikuspegia. Alde batetik Elizanbururen euskararen ezaugarri batzuk agerian emanen ditut: hiztegiaren partetik, bereziki; bestetik, gaur egun euskara batuaren arauetan emateko eztabaidagai diren zenbait pondutan, Elizanburuk zer eredu eskaintzen digun ikusiko dugu: bai adizkera alokutiboen erabilere-tan, eta bai aditz morfologiari dagozkion beste zenbait pondutan ere. Joskera eta kasuen morfologiak ere balizateke zer erran naski, baina beldur bainaiz luze lihoakigukeela orduan mintzaldi hau, gai horiek hun-ki gabe utziko ditut hemen.

Hona beraz, ohar batzuk, *Piarres Adame* elaberriko hiztegiak eta aditz morfologiak.

1. HIZTEGIA

Piarres Adame elaberri herrikoa (hitz hori mugaz beste aldean emanen dioten edukin bereziarekin konpreni bedi) da arras, 1880.eko hamarkadan sortu ziren ipar aldeko kazeta zenbaitetan (*La Nivelle* eta *Le Réveil Basque* delakoetan) hostoka agertzeko gisan egina, irakurtzaileen azikartzeko helburu garbiarekin. Eta, hain zuzen, herrikoitasun hori hobekienik erakusten duena, beharbada, hiztegia bera da.

Bost pondutan bil daitezke *Piarres Adame*-ko hiztegiaren ezaugarri nagusiak:

1. Lapurteraren gainean finkatua da; 2. nahiz hitz kasik guztiak ipar aldeko eta bereziki baxenabartar gehienek konprenitzeko modukoak diren; 3. guti dira, beraz, liburuetarik ateraiak diren, eta eguneroko euskara mintzatuari ez dagozkion hitzak; 4. horrek ondorio baitu hitz mailegatu anitz agertzen dela elaberrian; 5. bestalde, irakurtzailearen konplizitatearen erdiesteko eta herrikoitasunaren indartzeko, euskarak eskaintzen dituen bide berezi batzuk; baliatuak dira, hala-nola errepikapenak, onomatopeiak, eta forma hipokoristikoak.

(1) Gehienetan euskalki kontuetako ponduak dira Garatek altxatzen dituen, eta dakigun bezala, irriskutsua da juje moduan kontu horietan ibiltzea. Zergatik datibo pluralaren aditz marka den *-ote* (*-o + te*) forma (*-e* formaren orde, erran nahi baitu *-o + e > e*) “akats” ote da? Zer funts du, duela ehun urte lapurteraz idatzi testu batez delarik solasa, *eragin* forma, *egin arazi* baino “hobe” dela errateak? Beste batzuetan, oharrak euskalkiaren berezitasunetik harago doaz: nork erran dezake *Sarako herria* sintagma “gaizki dago(ela)” euskaraz, eta *Sara herria* baizik ez dela “ongi”?

Bost pondu horiek nola obratzen diren hurbilagotik ikusiko dugu orain.

1.1. Lapurterazko hiztegia (2)

Lapurteraz idazten zuen Elizanburuk, eta ez zuen indar berezirik egiten beste euskalkietarik hitzak harturik bere hiztegiaren zabaltzeko. Badakigu, Manterolari idatzi zizkion gutunak lekuko ditugularik, Elizanburuk euskararen inguruko goiti-beheitiak hein batean segitzen zituela, hiztegiko kontuetan bereziki. Horren hatzik kasik batere ez da ageri, ordean, haren idazlanean, eta, irakurtzaile anitz baxenabartarrak izanen zituela jakinik ere, baxenabartar hiztegi berezitik arras guti hartu zuen. Ez dugu, konparazione, *biziki*, *ontsa*, *ukhan* edo *bortha* bezalako hitzik aurkitzen elaberrian (3). Hain segur, kondatu ixtorio ia guztiak, Lapurdin,

(2) **Klasikoak** sailean egin den azken argitaraldian badira ipar aldean erabiltzen diren lauzpabost hitz, erran nahia gaizki emana izan dutenak hiztegiari doazkion oharretan. Argitaralpen hori erreferentziazkoa denaz gero, hona hemen ene arabera zuzentzekoak direnak:

Goitatu: *Aditu duk, behinere, Pello, erraten goitatu ez dela frankotan deusik galtzen. Goitatu hitza erne ibili itzulia da oharretan, baina goaitatu, euskarak kaskoinari harturik moldatu duen hitzaren aldaki bat dukegu hor, igurikatu, beha egon edo zain egon erran nahi duelarik.*

Desbistatu: *atso madarizione hori, errienta ondotik, heldu duk gure aitzinera, haur guziak, bat bertzearen ondotik, bere begi ikaragarriekin desbistatzen dituelarik. Desbistatu hitza itxuratxartu itzulia da oharretan, hitzak batzuetan hartu izan duen adierarekin (ik. Lhande, honek Harriet aipatzen duelarik), baina ez bide da hori zuzen. Desbistatu hitzak, elaberrian, frantsesari darraikion erabilera du, bista hitzarekin gurutzatua izan bada ere: fr. *devisager* - desbistatu (*desbisaiatu* genueklarik kalko zuzena). Erran nahia, beraz, norbaiten begitarteari ongi-ongi behatzea da.*

Gobernamenduko gizona: *familiako aita prestu bat eta (...) gobernamenduko gizona. Gobernamenduko gizona honela itzulia da oharretan: ongi gobernatzen den gizona. Teorian interpretapen hori ezinezkoa ez bada ere, ez du erran nahi hori elaberrian. Gobernamenduko gizona, alabaina, goarda da, erran nahi baitu gobernamenduaren kondu lan egiten duen gizona, Saran edo Azkainen, zehazki errateko, mugazain dena, hots.*

Parrapio: *Zenbat mila xinhaurri sentitzen nituen bir-bir- bir zabiltzala nere parrapioetan. Parrapio hitza zango itzulia da oharretan (galdera marka batekin). Gero ikusiko dugunaz, hizkuntza mailak edo hizkuntza tabuak eta jendetasunari doazkion hesiak kontuan hartu gabe, gizonaren gorputz parterik berezkoena izendatzen du hitz horrek elaberrian; ikus beheraxeago hitz honetaz testuan dioguna.*

Erlats: *aditzen baitut halako boz herdoil eta erlats bat. Erlats hitza zakar itzulia da oharretan. Zuzen-zuzen erlats hitza, fr. *enroué*, eta esp. *ronco* erraten dena da.*

(3) Menturaz norbaitek *tuntitu* aditzaren kasua aipa dezake hemen diogunaren aurka. Aditz hori Azkuek (eta honen hatzetan jarraikiz Lhandek ere) baxenabarrerari lotzen du, Aldudeko eskualdekoa dela erranez. Ordean erabilera zabalago izan duela iduri luke, eta lapurteran ere ezaguna zela uste izateko da, *Piarres Adame* idazlanen agertzeak erakustera ematen duen bezala. Hona hitz hori agertzen den pasartea: *nola ez da harritzen Piarres, ikusten duenean nagusi hori, asaldatzeko ordean, ez dela den gutiena ere tuntitzen.*

saratar, azkaindar eta zugarramurdiarren artean gertatzen baitira, herritar-tasun berezi hori eman nahi ziokkeen bere testuari, lapurteraren usain eta kolore bereziak hitzetan ere agerian emanez.

Halaber, lapurteraren eremutik ez aterarik ere, nehola ere ez da entseiatzen, euskararen altxorraren aberastasuna erakutsi beharrez edo bere mintzaira hartaz joriago egin beharrez, hitz berri asmatzen ibili gabe ere, hitz zahar, erdi-galdu edo literaturan guti baliatuen biltzera, handik hogei eta hamar urteren buruan Etcheparek eginen zuen bezala, edo garai hartan berean jadanik, beste manera batean, Duvoisinek. Dudarik ez da, Lapurdiko mintzaira bizi, egun guztietakoari jarraiki zitzaiola gehien-gehienik elaberriko hitzen hautatzeko tenorean.

Horiek hola, Elizanburuk ez zituen xokokeriak nehola ere xerkatzen. Hiruzpalau hitz baizik ez daitezke atzeman, ipar aldeko irakurtzaile arruntak, mintzoz lapurtar ez izanik, konpreni-gaitzak kausi zitzakeenak, ipar aldean gaindi ere toki guztietan ez baitira erabiltzen, eta guti ezagunak direlaketz.

Alabaina *unhatu, nere, ethorri, guan*, ... bezalako hitzak, edo *gogorki* gradu adberbioa, lapurterazko formak badira ere, pentsa daiteke, ipar aldeko euskaldun gehienek ezagutzen zitzutela, gisa horretako hitzak erabiliz, Elizanburuk ez bide baitzituen lapurtar ez ziren irakurtzaileak deusetan bortxatzen.

Badira hala ere hitz bakar batzuk hain ezagunak ez direnak; hona zein:

Parrapio. Hitz hori ez da agertzen Azkue eta Lhanderen hiztegetan. Hona zer gisatan erabilia den: P. Adame aran ondo baten puntan da, aran biltzen ari, noiz eta ondoaren jabea den emazteki bat, hasarre gorrian heldu baitzaio eta oihuka hasten. Eta honela dio P. Adamek, bere lagun gazteari bere orduko izialdura kondatzen diolarik: *Zenbat mila xinhaurri sentitzen nituen bir-bir-bir zabiltzala nere parrapioetan*. Beste pasarte batean, metafora bera erabiltzen baitu Elizanburuk, bigarren aldi honela dio: ... *ikusi eta ezagutu dutanean emazteki hori, (...), iduritzen zaitak, muthikoa, ehun mila xinhaurri bedere aztaletan gora igaiten zaizkitala*. Bigarren aldi honetan, beraz, *aztal* hitza agertzen da *parrapio* hitzaren orde. *Zango* itzulia da *parrapio* hitza elaberriaren azken argitaraldian, itzultzaileak bere segurtamenik eza galdera marka baten bidez erakusten digularik. Galdatu diedan saratar adinean doi bat sartuek —iduriz gazteagokoek ez baitute ele hori gehiago ezagutzen— *parrapio* hitzak *ondasun* erran-nahi zuela erran

Bestalde, badakigu, gaur egun ere *tunt* polaritate negatiboa duen hitz gisa komunzki erabilia dela, partitiboaren marka dakarrelarik: *ez du tuntik aditzen*. Halare, formazko berdintasunagatik, galda daiteke ea egiazki bi hitzak errokide diren.

didate, hitz hori lurreko kontuetan bereziki erabilia zela gaineratuz. Ez da dudarik, haatik, zeharkako erabilera duela hitzak elaberrian, han gizonaren gorputzeko parterik intimoena izendatzen baitu. Hain zuzen saratar horiek berek ere, hitzak bigarren erran-nahi sexual hori ere bazuela erran didate, mutikoen arteko mintzairan erabiltzen baitzuten denboran. X. Videgainek ere, Euskal Herriko Atlas linguistikoarentzat egin dituen inkestetan, bigarren adiera horrekin bildu du *parrapio* hitza, hala Saran nola Azkainen.

Ez dakit ausartzia handiegia ez ote den, baina ideia banuke, Elizanburuk hitz hori isilka, kontrabandan bezaia, sartu zuela bere elaberrian, pentsatuz zenbait lapurtarrek baizik ez ziezaioketela eman bere erran-nahi zehatza hitzari, eta gisa horretan ele itsusien zentsura errazkiago iragan zezakeela. Alabaina, arradoa da holako hitza joan den mendeko euskarazko testu idatzietan aurkitzea, are gehiago ororen eskupean izan nahi zuen testu batean.

Birunda lapurtar hitza ere kausitzen da, inesiboan erabilia *itzulika* errateko: *bere makhila gorria buruaren gainetik birundan dabilkalarik*. Hitz hori agertzen da hiztegieta eta oraino ere erabiltzen da; J. M. Lekuonak dioenaren arabera, Oiartzunen ere ezaguna da.

Bekhunde hitza ere aipa daiteke molde bertsuan: ... *batek airos eta alegera bezain bertzeak ihun eta goibel zuela bekhunde*. Hiztegien arabera, *begitarte* edo *bekainarteko* errateko erabilia zen hitz hori (Azkue, Lhande, OEH,...). Gaur egun, Saran, *bekain* erran nahi omen du.

Arrolaka: ... *ahal nuen bezala altxaturik etzina nindagon lekhutik, guan ninduan etxera, arrolaka, ederki umatua*. *Andarka* hitzaren pareko den ele horrek ere bere tokia badu hiztegieta, Lhandek ekartzen baitu Hiribarren aipatuz. Hemezortzigarren mendearen hondarrea agertzen da zenbait bertsutan (4) eta Duvoisinek eta, mugaz haraindian, Urruzunok ere ezagutzen zuten (ikus OEH). Gaur egun, haatik, bakarrik *andarka* erraten omen da Saran, ez *arrolaka*.

1.2. Hiztegiaren garbitasuna eta maileguak

Lehenago erran dugunaren arabera herritartasunari lehenetasuna ematen baitzion Elizanburuk, hiztegiaren xahutasuna hein batean bakarrik zaintzen zuen, eta ez zuen indar berezirik egiten, maileguei ihes eginez eta orduko lapurtera oinarrizkotik aterarik, hitz berezi, garbi baina guti

(4) Ikus *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma* (1798), Patri urkizuk 1987.ean argitaratua.

ezagunen erabiltzeko. Kausitu ditudan adibide bakarrak bat edo biga dira bakarrik (5):

eskutitz: *letra edo eskutitza* dio Elizanburuk, hitzaren erran nahia argituz. Larramendiren hiztegian iturburu duen hitz bakarra dateke elaberri guztian, hain segur zeharka heldu izan zitzaiona Elizanbururi (Larramendik **ezkutitz** baitzekarren bere hiztegian).

xarlango hitzari ere hiztegi usaina dariola iduritzen zait. Alabaina, hitzaren erran nahia frantsesez ematen baitu (*lévrier*) pentsa daiteke hitza zenbait hiztegitarik edo menturaz zenbait irakurgai berezitarik atera zuela Elizanburuk. Nahiz Lhandek ekartzen duen, Pouvreau eta Harrieten hiztegiei erreferentzia eginez, ez du iduri hitz hori egun erabiltzen dela Saran. Nola nahi ere den, banago ni, hitzaren itxura berdenboran kankail eta kiskilagatik bereziki hartu ez ote zuen Elizanburuk, arras dudazkoa den haren “garbiari” hainbat behatu gabe; hasteko, ezin hobeki heldu zaio hamabost urte zitueneko bere buruaren potretaren egiteko: *geldirik iduri zuen xirio bat, zabilanean, xarlango bat*. Hobeki itzul zitekeena gonbarantza?

Lapurterazko hiztegitik sobera hastandu gabe ibili nahiz, eta bere kondairari herritar zintasuna gorde beharrez, Elizanburu ez zen beldur maileguz sortu euskal hitzen erabiltzeko, zaharrak edo berriagokoak ere izan zitezen: *sos, errient, bisaia, trebeska, mendre, murde, trukes, uros, fierkisko, mokanes, malefizio, traste, tribulazione, propi, propiki, organo, errepusta, membro, superki, axudant, salutantzia, printzipal*, etab... Luza daitekeen adibide zerrenda horrek erakustera ematen duen bezala, Elizanburu aski librokori ari zen hiztegi gauzetan (6).

Maileguez denaz bezainbatean, halere, ez gaudeke erran gabe, zenbait aldiz jostatzeko sartzen zituela hitz mailegatuak Elizanburuk. Adibidez, P. Adamek *Olhetako plaza printzipala* aipatzen duelarik, Olhetako plaza, elkarri gibel aldea erakusten duten hiruzpalau etxek osatzen dutela erran ondoan, *printzipal* horrek badu bere grazia berezia, mailegu izatetik beretik heldu zaiona.

Maite zuen, bestalde, Elizanburuk, hitz jokotan aritzea, maileguzko hitzei euskal itxura emanez bereziki. Batzuetan hitz mailegatuari nabari den gurutzaketak ez du helburu berezirik, hala nola *desbistatu* hitzean *bista* hitza sartzen delarik *bisaia* hitzaren orde (ik. 2. oharra). Beste zenbaitetan, ordean, euskaldunek etimologiaren aldera duten jauginaz

(5) **Xerrenda** hitza erabiltzen du Elizanburuk *gorbata* edo *ttattarra* errateko, baina hitz hori balio horretan ere erabilia zen beharbada (nahiz Lhandek erabilpen horren berri ez digun ematen).

(6) Librokori, baina hitz berririk asmatu gabe: herriko euskaratik ari da hitz maileguetan ere.

goxoki trufatu gogo duela iduri luke, hala nola *Escorial* Madrilo jauregiaren izena *ezkur jale* euskal hitz elkarketatik eratortzen duelarik, edo *ixtorio* hitza *hitztorio* idazten duelarik (7). Euskal hitzetan ere horrelako jokoak egiten ditu bakanka, adibidez, *aberats* hitzaren etimologia eginez, *aberatsu* idazten duelarik: *On duk orai yakin dezakan, Pello, murde Erremundegibehere, Sarako hauz'apheza, herriko aberetsuetarik bat zela; bazitian arthaldeak Larrunen, Ibantelin, Harxurian eta, hots, zokho guzietan.*

1.3. Hitz morfologiari dagozkion zenbait itzuli, Elizanburuk bereziki baliaitzen zituenak

Hiztegi mailako herrikoitasunaren adierazgarri dira halaber, Elizanbururi gustatzen bide zitzaizkion hitz erabide berezi, euskara biziak eskaintzen zizkionak, errepikapenez, onomatopeiaz, eta fonema eta atzizki hiporistikoez moldatuak. Ikus ditzagun adibideak.

Errepikapenak:

– *berri-berriak, xut-xuta, hori-horia, beltz-beltza, (aran) hori-hori eta onyu-onyu (batzuez), haia-haia, nirnir, dal-dal-dal, klask-klask-klask, dir-dir-dir, bir-bir-bir, ...*

– *emeki-emeki, bakhar-bakharrik, bide hegi-hegian, haur-haurrean, prest-presta, ixil-ixila, ...*

– *kheinu-meinu, ...*

– *bil eta bil, jo eta jo, urtheak eta urtheak, ...*

Onomatopeiak:

– *dir-dir-dir egin, nirnir egin;*

– *bir-bir-bir (mila xinhurri sentitzen nituen bir-bir-bir zabiltzala...)*

– *kask-kask-kask (atea joz);*

– *dal-dal-dal (ikharan zagoian, dal-dal-dal);*

– *kilimiliklik (nik iretsi nuen, lehen-bai-lehen, kimikiliklik);*

– *pinpi-panpa (hantxe hasten pinpi-panpa, jo eta jo);*

– *kar-kar-kar (hasten baita kar-kar-kar irriz);*

– *krik!, (krik!, hor heldu zaiok ahora gelditua zuen hezurra);*

(7) Uste dut horrela interpreta daitekeela usaiaz kanpoko idazkera berezi hori, hitz joko bat bezala, hots.

– *pil-pil-pil (izerdi hotz bat (...) xurrutan yausten zitzaitalarik);*

– Ez dakit *haia-haia* ere ez ote genukeen onomatopeien artean sartu behar.

Soinu eta atzizki hipokoristikoak:

– *gizon adinekotto bat, hexur xurizkoa, bottoin ttiki bat, bere pipa motx eta beltza, beheraxago, luxe, gibelaxago, beattar, xoko, esplikazionetto, etab...*

– Menturaz behin edo beste kontrako jokabidea baliatzen du Elizanburuk, soinu-joko anti-hipokoristikoak eginez, adibidez, *bitzi* forma, *bitxi* forma ez-markatuaren orde erabiltzen duelarik: *bere aita jaunak erran dionean oihu hoyek direla miriku handi baten deihadarrak, Andre Prinze-sak gauza hori hain bitzia kausitzen dik non hasten baita kar-kar-kar irriz,*
...

2. ADITZ MORFOLOGIA

2.1. Adizkera alokutiboak (8)

Piarres Adame partez toka idatzia baita, adizkera jokatuak maiz alokutiboak dira. Uste dut, Leizarragaren lanaren ondotik, lapurtera klasi-koari darraizkion obra modernoan artean, hoberenatarik dela alokutiboak lapurtar tradizioan nola erabiltzen zen ikusteko. Oraindik forma alokutiboak euskara batuan ez baitira araukatuak izan, balio du, menturaz, Elizanburuk pondu horretan zer jokabide zuen ikustea.

Bi puntu badira hemen ikertzeko. Lehenik ikusiko dugu adizkera alokutiboak noiz erabiltzen zituen Elizanburuk; bigarrenik, erabiltzen zituelarik nola egiten zuen.

2.1.1. *Elizanburuk adizkera alokutiboak noiz zerabiltzan*

Lehen ponduaz denaz bezainbatean, eredu klasikoari jarraitzen zaio oso-osorik Elizanburu. Adizkera alokutiboen erabilpena ez da sekula librea: haizu direlarik, erabili behar dira. Testu osoan ez da kontrabide bihirik ere.

(8) Hemengo erabileraren arabera, adizkera alokutiboak, 2. pertsona, aditz partaide edo argumentu izan gabe, pertson indize gisa agertarazten dutenak dira. Mugapen honetan, *haiz* ez da adizkera alokutiboa (alokutarioa edo solaskidea aditz partaide delakotz), *gaitik*, erran nahi baitu *gaitu* eztabadaka, bai, ordean, (solaskidea ez delakotz aditz partaide); *duk*, berriz, ambiguo da.

Noiz haizu dira, beraz, adizkera alokutiboak *Piarres Adame*-n? Toka mintzatzen den perpaus adierazgarri guztietan, baldin aditzak atzizki edo aurrizki menperatzaierik ez badu, horrek erran nahi baitu ez direla agertzen ez galderetan, ez eta *ba-* baldintzazkoa, *bait-*, edo *-n / -la* atzizkiak (eta haien bidez sortu guztiak) adizkerari lotzen zaizkiolarik (zerrenda horri aginterazko *b(e)-* aurrizkia ere gainera geniezaiokie, baina *Piarres Adame*-n ez da holako formarik agertzen).

Hona zenbait adibide.

Zati-galderetan (ohart adibide bakarrak galdera erretorikazkoak izanagatik, halare alokutiboa baztertua dela):

Zer! ez duk ezagutzen Piarres Adame?... Eta Saratarra haizela diok? Nork ez du ezagutzen Piarres Adame, Saran eta bertzetan famaz bedere? (35)

Ikhusten dukan bezala, Pello, ez zuan beraz haurride guztietan bat talo egiteko ere on zenik, eta halere non zen irina talo egiteko?...

Galdera osoetan (hemen ere erretorikazkoak):

Emazteki hori dudatu othe zen ez nakiela irakurtzen? ala nahi izan othe zuen bere bi-sosekoaren balioaz berehala segurtatu? Ez zakiat, Pello.

Ba- baldintzazkoa baldintza errealetan (kontzesiboak barne):

Orhoit hadi, muthikoa, mintzatzeak zilharra balio badu zenbait aldiz ixiltzeak maizago urhea balio duela (52).

Bi baso galdetu baditut, ez ditik biak batek hartuko (54)

Nere ile bakhar, luxe eta xuriek gorritu behar badute ere nere hitzari ohore eginen diat (44)

Ba- baldintzazkoa baldintza alegiazkoetan:

Saratarra ez banintz, Azkaindarra nahi nitek izan (52)

Egungo egunean ere ikhus baneza, Pello, bi-soseko madarika-tu hura, ezagut nezakek, oraino balitz ere bertze ehunen artean (46)

Bait-aurrizkiarekin:

Beraz gelditu gintuan haur multxo bat, zaharrenak ez baitzuen oraino hik orai dukan adina (42)

-(e)n atzizkiarekin:

Perpaus erlatiboa: *Behin ikhusi nauenak ez naik ahanzten* (35)

Zeharkako zati galdera: *Aditu behar ditek ongi, zer ordena ematen dugun axudantak eta nik* (82).

Subjontiboa eta zeharkako galdera osoa: *Utz dezagun beraz hori hor, berdin aski goiz ikhasiko duk egia diotan ala ez* (39)

-(e)la, -(e)larik, -(e)laketz atzizkiekin:

-(e)la konpletiboa: *Hik uste duk behar bada, Pello, aldean dukan gizona etxeko yaun aberats zenbait dela* (39)

-(e)larik denborazkoa: *bidean guazilarik erranen darozkiat nere haur denborako eta geroztikago zenbait hiztorio* (37)

-(e)laketz kausala: *guzienak dituk, bidearen hegian direlaketz* (57)

2.1.2. *Elizanburuk erabili adizkera alokutiboen forma*

Ikertzeko dugun bigarren pondua adizkera alokutiboen forma baita, ikus dezagun *Piarres Adamen* agertzen diren adizkera alokutiboak nola-koak diren:

izan aditza

oraina / nori gabea

nauk (naiz)

duk (da) / dituk (dire) / zukek (bat. dateke) zaiok (zaio)

gaituk (gare)

oraina / nori-duna

zaitak (zait) / zaizkitak (zaizkit)

iragana / nori gabea

ninduan (nintzen)

zuan (zen) / zituan (ziren)

gintuan (ginen)

iragana / nori-duna

alegiatzkoa / nori gabea

lukek (bat. litzateke)

***edin aditz laguntzailea**

Et da forma alokutiborik morfologikoki ***edin** aditz laguntzailearen gainean eraikirik.

Hala ere, ahalezkoari dagokion paradigmako adizkera bat bada, bat. **daiteke** adizkerari doakiona, **zukek** formaren bidez adierazia dena tokako alokutiboan: *erran zukek (= erran daiteke)*. Hiru aldiz agertzen da **zukek** forma, **daiteke** adizkera laguntzailearen baliokide alokutibo gisa, hiruetan *erran delarik* aditz nagusia; (ik. 12. oharra).

edun aditz laguntzailea*oraina / nori gabea**

naik (nau)
diat (dut) / ditiat, ditiak (behin) (10) (ditut)
dik (du) / ditik (ditu)
diguk (dugu)
ditek (dute) / ditiztek (dituzte)
gaitik (gaitu)

iragana / nori gabea

nindian (ninduen)
ninduteyan (ninduten)
zian (zuen) / zitian (zituen)
ziteyan (zuten)
nian (nuen) / nitian (nituen)
ginian (genuen)

alegiatzkoa / nori gabea

nikek (nuke)

-i- aditz laguntzailea*oraina / nori-duna (9)**

zarotak (darot, bat. dit)
zarotatek (darotate, bat. didate)

iragana / nori-duna**oraina / nori-duna**

ziok (dio)
zioteyat (diotet, bat. diet)

iragana / nori-duna

nioyan (nion)

***ezan aditz laguntzailea**

Forma bakarrak: *zezakeyagu (dezakegu); ezagut nezakek (nezake)*

(9) Elizanburuk *-aro-* erroa erabiltzen du **edun* aditzarekin moldatu datibodun formetan. Menturaz *-au-* diptongoaren idazteko modua baizik ez da hor, *-erau-* aditz erroari erreferentzia egiteko baliatua. Elizanbururen ortografiak holako jokabidea bestetan ere erakusten du *-g-* bokalarteko bat sartuz diptongo baten erdian: *hein*, *hegin* idazten du, *sarde*, *sagarde*. Adizkera jokatueta ere *-g-* modu horretan baliatua da, baina *-r-* ere bai: *liburua* eskuetan *nagokalarik* (= *naukalarik*; bat. *neukalarik*); irriz *kar-kar-kar zarotzilarik* (= *za[g]o-tzilarik*, bat. *zeudelarik*); etxeko *andre hori estimu handian zarokalakotz* (*zaukalakotz*; bat. *zeukalakotz*).

(10) Ez uste ukan baitezpada ohargabeko hutsa dela hor, nahiz *ditiat* forma ere agertzen den *ditiak* horren ondoan. Alabaina, *zakiak* adizkera ere agertzen da behin *zakiat* formaren ondoan. Galda daiteke, **diti(d)ak* eta **zaki(d)ak* adizkeren aldakiak ez ote ditugun hor (cf. *diagu / diguk*), edo, berdin edo hobeki, ez ote diren adizkera horiek **diti(d)ak* edo **zaki(d)ak* formetarik sortuak; (cf. *diagu / diaguk / diauk*).

adizkera trinko alokutiboak

joan: *nohak* (*noha*, bat. *noa*) / *zohak*, *ziohak* (*doha*, bat. *doa*)

ibili: *zabiltzak* (*dabiltza*) / *zabilayan* (*zabilan*, bat. *zebilen*)

egon: *nindagoyan* (*nindagon*, bat. *nengoen*)

jakin: *zakiak* (*behin*), *zakiat* (*dakit*) / *zakitek* (*dakite*) / *nakian* (*nakien*, bat. *nekien*)

-*io-: *ziotek* (*diote*)

Bildumaren egiteko, zer erran daiteke hor agertzen diren adizkeretz?

1. Alokutiboaren indizea, *-k* da beti adizkeraren ondarrean, eta, bestela, *-a*: *zuan*, *ninduan*, *zioyan*.

2. *-a* alokutiboaren aitzinetik joda sartzen du Elizanburuk aurretik bokale ez-hetsia denean: *zezakeyagu*, *ninduteyan*, *nindagoyan*, *nioyan*, *zabilayan*, ... vs. *nakian*, *zuan*, ..., jodarik gabe beraz, bokale hetsien ondotik.

3. Alokutiboaren indizea atzizkia da kasu guztietan (11). Atzizki datiboaren eskuinean da beti (*zaitak*, *zarotak*, *ziok*, ...) usaia den bezala, baina ergatiboaren indizearen eskuinean ere agertzen da batzuetan, hau numero indizea (*-te*) delarik bereziki: *ditek* (ez *die* > **diae*), *ditiztek* (ez *ditie* > **dittiae*). Ergatiboa pertson indizea delarik ere gertatzen da indize alokutiboa ondar lekuan agertzea, gehienetan bestaldera gertatzen bada ere: *diguk* (ez *diagu*), vs. *diat*, *zioteyat*, *zezakeyagu* ... (ik. halaber 10. oharra).

4. Adizkera alokutiboetan oraineko formetan batzuetan agertzen den lehen silabaren gaineko aldaketa agertzen da, baina *d*-denbora markarekin bakarrik: *zohak* eta *ziohak*, *zabiltzak*, *ziotek*, *zarotak*, *ziok*, *zioteyat*, vs. *nohak* eta *zaitak*. Salbuespen bakarra *du-* edo *di-* formak dituzten adizkeretan agertzen da: *dik*, *diguk*, *ditek*, *duk* (hala ere *zukek* erabiltzen du, *dateke* / *daiteke* sinkretismoaren baliokide alokutibo gisa).

5. Aditz laguntzaile aldaketak usaiatzkoak dira:

izan → **edun* (nor bakarrean);

**edun* → *-i-* ((nor-)nork formetan).

(11) *Duk* adizkera anbiguo bada, lehen erran dugun bezala, haren [-oraina] saileko baliokideak ez dira halakoak, beraz, Elizanbururen paradigmetan: *huen* vs *zuan* eta *huke* vs *lukek*. Kontraste klasikoari jarraituz zai o beraz.

Hala ere lehenago erran bezala, *zukek* forma (formalki **edun* erroari dagokiona) erabiltzen du **edin* aditz laguntzailearen forma baten orde: *erran zukek* (eta ez *erran diaitekek* edo *zitakek*) (12).

2.2. Sintagma datiboarekilako komunztadura

Alokutibotasunaz lekora, beste bi ohar egin behar direla uste dut aditzari dagozkionak. Lehenik, azpimarratu behar da, Elizanbururen lanetan Lafittek kostako solezismoa deitzen zuen joera ez dela agertzen. Badakigu joan den mendean jadanik hasia zela lapurteran *nau / daut* bikotearen nahasketa. Holakorik ez da agertzen, ordean, *Piarres Adame* elaberrian.

Bada, haatik, ipar aldean ongi ezaguna den, baina ordu arte ekialdeko euskalkietan bereziki agertzen zen beste joera bat, *Piarres Adamen* ere (Lapeyre-ren lanetan bezala) kausitzen dena, eta aditz jokaturari dago-kiona: datiboarekilako komunztadura aukerazkoa izatea. Elizanburuk anitz adibide ditu, bai ergatibodun adizkeretan, bai ergatibogabeetan ere, datiboarekilako komunztadurari ihes egiten diotenak. Hona aurkitzen diren adibideak (13):

- *Maite duenari zikoitzari nik uzten dut urhea* (41)
- *Yaun errientak erraten zian, aditu nahi zuenari* (43)
- *nere hitzari ohore eginen diat* (44)
- *elkharri agur erran ginuenean* (49)
- *bideari lothua zela* (31) / *lothu ginen bideari* (51); beste 4 adib.
- *sos galdetzen hari direla mezara heldu diren yenderi* (44)
- *azpiko laguneri egortzen bainituen* (58)
- *eskerrak bihurtzen nituelarik Yainkoari* (62)
- *elkharri gibel aldea erakusten zutela* (68)

(12) *Zukek* forma aditz trinko gisa ere erabiltzen zuen Elizanburuk, baina orduan adizkera erregularra da, *izan* → **edun* aldaketa dugularik: *Bazukek emazteki gisako bat ere zen*; (ez alokutiboan: bat. *badateke* dugu hor, baina Elizanburuk *badaiteke* idazten zuen holako kasuetan, bi formen sinkretismoa agerian emanez, beraz, eztabadakako adizkeretan ere). Bonapartek ere horrela ematen zituen lapurterazko forma horiek, *daiteke* formak, bai bat. *daiteke*, eta bai bat. *dateke*, biak, adieraz zitzaizkalarik; hala ere hark kontrastea adizkera alokutiboen aurritzian agertarazten zuen: *dukek* (bat. *dateke* eztabadaka) vs *zukek* (bat. *daiteke* eztabadaka); (ik. *Le verbe basque en tableaux*, 2. parte, 2. eta 5. orr.; in *Opera omnia vasconice*, I, 266. eta 269. orr.).

(13) Adibideen ondoko zenbakiak *Klasikoak* saileko argitaralpeneko orrialdea erakusten du.

- *mintzo dela yaun errientari* (64)
- *hiliki bati lotzen diren bezala* (76)
- *ez zituan berehalakoan elkharri yokatu* (80)
- *yuntatuko gaituk armada horri* (84)
- *herritar guzieri mintzatu haizenean* (84)

Badira beste adibide batzuk hain argi ez direnak, haietan kopulak komunztadurarik ez baitu atributuaren osagarri datiboarekin:

- *Lapurdi Nafarroari nagusi zela* (36)
- *Nere gizonari hurbil nintzen* (32)

Gauza bera beharbada *beha egon* lokuzioarekin:

- *hantxe nindagoyan liburuan axaleko xoriari beha* (45)
- *nori beha zagon (...)* *yende guzia* (78)

Ikusten den bezala, komunztadura ematen ez den kasu horietan guztietan 3. pertsonako komunztadura da. Ez da agertzen *eni eman du* bezalako adibiderik (baxenabarreran aurkitzen ahal badira ere). *Elkarri* delarik sintagma datiboa (bi kasutan elaberri guztian), komunztadurarik ez da gertatzen; adibide oinarri hurria bada ere, uste dut gure artean, aski zabaldua den joera hori. Halaber, **lotu** aditzak ere *ekin* aditzaren parekoa delarik elaberrian (*bideari lotu*) ez da komunztadurarik agertzen.

3. AZKEN HITZA

Labur egin beharrez, bazterrean utzi ditugu hemen sail batzuk, lapurtera klasikoak joan den mendearen ondarrean hartua zuen itxuraren hobeki ezagutzeko, azterketa merezi zutenak: deklinabidea, eta joskera oroz gainetik. Deklinabidean lapurtera modernoaren anitz forma erakusten du Elizanburuk: *-eri* (ez *-ei*) da haren obran artikuluko pluralarekilako datiboko ondarkiaren forma; *-e + e* → *-e-* egiten du deklinagaiari ondarkia lotzean (adibidez, *bertzek*, *umeri*, ...); mugagabeko ondarkia eta artikuluko pluralarekilakoa ez ditu beti bereizten (*ehun debruek eramen balute bezala*); *-ra* eta *-rat* adlatiboko kasu marka nahasteka darabiltza iduriz, batean bata, bestean bestea. Joskeran ere balizateke zer erran, nahiz oro har itzuli klasikoak, berrikuntza handirik gabekoak, eskaintzen dituen. *Zein* + artikulua, oraindik beldur gabe baliatzen du izen ordain erlatibo gisa adizkera jokatuari *bait-* aurritzia lotuz (*bi soseko madarikatua*, ***zeinak*** *erretzen baitzarotan sakela*), lapurtera klasikoaren tradizioari jarraikiz. Aitzitik *ahal* eta *behar* partikulak modu modernoan darabiltza, lehena *izan* eta

edun* laguntzaileekin (*yakiten ahal duzu*), bigarrena maiz eta maiz probabilitatea adierazten duen modalitate markatzaile gisa (*ezagun zen gizon adinekotto bat behar zela izan*). Menturaz seinatzeko dira, oraino, ondoko pondu hauek: *balio ukan* aditz lokuzioarekin perpaus osagarriari ergatiboa lotzea: *ez dakit balio duen aiphatzeak*; *iduri ukan* aditzarekin pertsona bat absolutuan erabiltzea, lokuzio horren argumentu egituran objektu bat balitz bezala (*hi iduri **hauten zoro handi batzuek izanen dituk*), *aditu* aditzaren erabilpen berezi bat nor-nori paradigmaterekin (*zerbait aditzen **bazaiote***); *bere* forma objektu posizioan (**bere(n) buru(ar)en** formaren orde): *biltzen ziteyan gure eta **bere** hazteko dina* (14); pasiboen erabiltzea ez bada tradizio horren barnean deusetan harrigarria (*norbaitek harat bil-araizak edo ekharriak ziren*), arradoagoa da, ordean, erlatibagintzak zeharka ekarri dukeen ondoko datibo hau, *ikhusi* aditzaren objektuari erantsia (15): *bertze **haureri** biltzen ikhusi nituen sosek xoratu, liluratu ninduteyan ...* Horra nahas-mahas emanik zenbait pondu, hemen aztertu ditugunez landa ere oraino besterik iker zitekeela erakustera ematen dutenak. Gaurko aurkezpen hau, ordean, horretan utziko dugu.

(14) Ohargarri da, pasarte hori zuzendua izan baita, bi bertsiotan ber forma kausitzen dugula: *irabazten ziteyan aski **beren** eta bere haurren hazteko* dio Donostiako Lore-Jokoetako bertsiok (I. Pagola, *Piarres Adame: testua eta argitalpenak*, ASJU 1985).

(15) P. Altunak seinatzen duen bezala (*Euskera*, 1989,1, 168. orr.), Harrieten *Ebanjelio sainduan* ere holako itzuliak agertzen dira, bai *ikusi* aditzarekin (Jo. 5, 19 eta Lk. 23, 8), bai *aditu* aditzarekin (Jo. 12, 38). Behin bederen ez da erlatiboa: *esperantiça baitçuen icussiko **cioela cembait miracuillu eguiten*** (Lk. 23, 8). Elizanbururena piska bat desberdina da hala ere, hartan *ikusi* aditzak aditz menperatuaren **objektua ere objektu gisa** hartzen baitu pluraleko komuntzadura jokarazizik. Objektua da hain zuzen erlatibatua. Ez naiz segur azken kasu honetan datiboarekilako komuntzadura egin daitekeela (Elizanburuk egiten ez duena, baina bestela ere, erran dugun bezala, maiz gertatzen zitzaion hari horrela aritzea). Gonbara:

**lan horiek aitari egiten ikusi dizkiot*

?**aitari egiten ikusi dizkiodan lanak*

??*aitari egiten ikusi ditudan lanak vs #aita egiten ikusi dudan lanak.*